

UROLA-KOSTA

Aia
Aizarnazabal
Azkoitia
Azpeitia
Beizama
Errezil
Getaria
Orio
Zarautz
Zestoa
Zumaia

ORIO

EIDER MURILLO » SOFBOL JOKALARIA

«Europako Txapelketakoarekin guk ere irabazi dezakegula erakutsi dugu»

Europako Sofbol Txapelketa irabazita eta mailaz igota, gustura agertu da



handitu

> E
ZAI
argi
07-(

> E
ZAI
Ura
(20

>

Azp
uda

T
 T
oi
 F
 Ir



ONINTZA LETE

Tolosaldeko
Hitza
Oarsoaldeko
Hitza
Busturialdeko
Hitza
Irutxuloko
Hitza
Goierriko
Hitza
Lea-Artibaialdeko
weba

[Eman izena](#)
[Hitza](#)
[jasotzeko](#)

Dagoeneko milaka
lagunek egu

Eider Murillo (Orio, 1989) Zagreben (Kroazia) izan da pasa den astean Espainiako Selektzioarekin. Etxera Europako sofbol txapelketa irabazita itzuli da. Asteburu honetan Urazca-OBB Orioko taldearekin ariko da eta oporrak hartuko ditu gero. Irailean ikasketak egitera Valentziara joateko asmoa du, baina argi dauka sofbola egiten jarraituko duela.

Europako sofbol txapelketa irabazi duzue. Gustura egongo zara, ezta?

Bai, oso pozik. Duela 2 urte mailaz jaitsi ginen. Gure entrenatzaileak selektzioa berriro egin zuen, taldean gazte asko sartuz. Hasieran funtzionamenduaren inguruko duda asko zegoen, baina azkenean primeran funtzionatu du taldeak. Aho asko itxi ditugu, geu ere irabazteko gai garela erakutsiz.

Zer esan nahi duzu horrekin?

Bada, duela bi urte jaitsi ginenean, askok pentsatu zuten guk, neskak, ez genekiela jokatzeko; orain erakutsi dugu geuk ere irabaz dezakegula.

Ezberdintasun handia al dago sofbolean nesken eta mutilen artean?

Espainiako Selektzioarekin mutilek txapelketa gehiago irabazten dituzte. Eurek beisbolean jokatzeko dute eta diru gehiago ematen zaio beisbolari. Baina orain erakutsi dugu guk ere badakigula jokatzeko eta irabazteko.

Kontatu nolakoa izan den txapelketa.

Kroaziara joan aurreko astea Bartzelonan egon ginen kontzentratuta. Han entrenatu ginen. Gero, Kroazian, 2 multzotan banatu ziren txapelketako parte-hartzaileak eta, hasieran, multzo bakoitzeko taldeek euren aurka jokatu zuten. Azkenean, multzo bakoitzeko bi talde hobereak play-off-etarako sailkatu ginen. Finalaurrekoa Frantziako Selektzioaren aurka jokatu genuen eta irabazi egin genien. Beraiek geratu ziren bigarren postuan, eta Kroazia, berriz, hirugarrenean.

Euskadiko Selekzioa ere bada, baina ez du honelako txapelketetan parte hartzen, ezta?

Ez, jokatzen ditugu txapelketa batzuk, baina hemen selekzio ofizialek hartu dute parte. Gainera, Euskadiko Selekzioan ez dago horrenbeste diru, eta honelako txapelketa batean bidaiak eta dietak ordaindu behar ditu federazioak.³

>> BIDALI ZURE IRITZIA

Izena:

Eposta:

Tituloa:

Testua:



Aurreko kodea kopiatu:

---=Mezua Bidali=---

Aurreko edizioak:

© Urola-kostako Hedabideak S.L. - Zelai Ondo 23, 20800 ZARAUTZ



Internet Ehuntzen S.L.-k garatutako webgunea